

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 IKASTURTEA

GRADU AMAIERAKO LANA

**GIZARTE HEZITZAILEA, EGUNGO IKASTETXEETAN TXERTATU
BEHARREKO PROFESIONALA**

Egilea: Lizeth N. Rincón Sánchez

Zuzentaria: Jon Martin Etxebeste

Leioan, 2022ko ekainaren 5ean

Eranskinak

A Eranskina: GRALean erabilitako galdetegia

Figura 3

Diseinatutako inkestaren galderak

GALDERAK

Laginen egoera sozio-demografikoa

- Inkestatuen generoa
- Inkestatuen adina
- Inkestatuen rol profesionala
- Inkestatuen esperientzia profesionala

Egungo hezkuntza sistemaren inguruko iritziak ezagutzeko

1. Etengabeko gizarte eraldaketa bizkorren menpe bizi garen heinean, egungo hezkuntza sistema zaharkitua geratu da.
2. Egungo hezkuntza sistemak ikasleen premia guztiei eraginkortasunez eta modu integralean erantzuten die.
3. Egungo hezkuntza sistemak estrategia berriak behar ditu, zenbait alderdi artatu gabe geratzen baitira.
4. Egungo ikastetxeak gero eta maizago ikusten dira beren kontroletik ihes egiten duten egoeren aurrean.
5. Eskolaren desoreka historikoak haren funtzioak egokitzea eskatzen du.
6. Ikastetxeen funtzio sozializatzailea, gaur egun, gainditu gabeko erronka da.

Hezkuntza eredu berritzailea ezartzearen premia ikertzeko

7. Arlo akademikotik, hau da, ezagutzen transmisio hutsetik haratago doan hezkuntza proposamena egitea premiazkoa da.
8. Ikastetxeetako esku-hartze sozio-hezitzaileak ikasleei jarrera pertsonal, hezigarri eta sozialei buruzko prestakuntza eskaini behar die.
9. Diziplinarteko hezkuntza planteamendu berri bat ezartzea beharrezkoa da, komunitatearekin askoz gehiago irekitzen dena.

10. Alderdi sozialari arduraz erreparatzen dion esku-hartze sozio-hezitzailea beharrezkoa da.
11. Hezkuntza planteamendu aktibo eta parte-hartzaile berria beharrezkoa da, egungo fenomenoek ulermen globala eta sakona errazten duena.
12. Egungo ikastetxeek erreferentziazko testuinguruekin koordinatuta lan egin behar dute.
13. Eskola, komunitateari eta gizartean eragina duten elementuei ireki behar da.
14. Hezkuntza eredu berritzaileak rol profesional berriak txertatzea eskatzen du, baita elkarrekin lan egiteko bideak eraikitzea ere.

Egungo ikastetxeetan gizarte hezitzaileak txertatzearen beharra aztertzeko

15. Eskola testuinguruari mesede nabarmena egiten dioten profesionalen artean gizarte-hezitzaileak daude.
16. Gizarte hezitzaileak eskolaren eta komunitatearen arteko lotura nagusiak dira.
17. Gizarte Hezkuntzak, edonon gertatzen dela ere, pertsonaren harreman-dimentsioa nabarmendu eta bizikidetzaz errazten duten jarrerak, balioak eta jokabideak sustatzen ditu.
18. Eskola eremuan Gizarte Hezkuntzako profesionalek aktiboki parte-hartzea ikasleentzat aberasgarria da.
19. Eskola eremuan Gizarte Hezkuntzako profesionalek aktiboki parte-hartzea irakasleentzat aberasgarria da.
20. Eskola eremuan Gizarte Hezkuntzako profesionalek aktiboki parte-hartzea familientzat aberasgarria da.
21. Gizarte hezitzaileak egungo ikastetxeetan txertatzea ikuspegi holistikoa errazten du.
22. Gizarte Hezkuntzako profesionalek zubiak eraikitzen dituzte.
23. Gizarte Hezkuntzako profesionalek gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak burutzen dituzte, eta horietan gizarte, hezkuntza eta familia alderdiak funtsezkoak dira.
24. Eskola eremuan gizarte hezitzailearen eredu txertatzea, gaur egun, premia bihurtu da.

Oharra. Itemak hiru ataletan banandu dira eta bakoitzaren emaitzak aztertzeko Likerten lau puntuko eskala erabili da (guztiz desados = 1; desados = 2; ados = 3; guztiz ados = 4).

B Eranskina: Parte-hartzaileen egoera sozio-demografikoaren emaitzak

Figura 4

Inkestatutako subjektuen rol profesionala



Figura 5

Inkestatutako subjektuen generoa eta rol profesionala




Figura 6

Inkestatutako subjektuen esperientzia eta rol profesionala

